

MERKATARITZA INDIZEA AZALERA HANDIETAN ETA ELIKADURA KATE HANDIETAN. 2023KO MARTXOA


Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 2,6 jaitsi dira 2023ko martxoan

Elikagaien indizeak % 5,3 egin du behera eta Gainerako produktuenak % 3,5 egin du gora

Eustaten datuen arabera, eta aurreko urteko hil beraren aldean, Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentek % 2,6 egin dute behera 2023ko martxoan, prezio konstanteetan eta lan-egutegiko baldintza homogeenetan.

Aurreko hilaren aldean (2023ko otsaila), eta urtaro-ondorioak behin kenduta, prezio konstanteetako salmentak % 1,9 jaitsi dira martxoan.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Hilabete arteko salmentek behera egin dute, bai *Elikaduraren* sektorean, bai *Gainerako produktuenean* (% 2,8 eta % 0,1, hurrenez hurren).

Urte arteko terminoetan, 2023ko martxoan 2022ko martxoaren aldean, prezio konstanteetako salmenten bilakaerak negatiboak izan dira *Elikaduraren* sektorean, % 5,3 jaitsi baitira. *Gainerako produktuei* dagokienez, ordea, emaitzak positiboak izan dira: salmentak % 3,5 hazi dira aurreko urteko martxoarekin alderatuta.

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). Martxo 2023

	Prezio finkoak		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	-2,6	-1,9	-0,3
Araba/Álava	-5,7	-0,9	-4,2
Bizkaia	-1,3	-1,6	1,1
Gipuzkoa	-3,4	-2,7	-1,2
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Janariak	-5,3	-2,8	-2,4
Gainerako produktak	3,5	-0,1	3,8
LANGILERIA-INDIZEA			
Euskal AE	5,8	1,0	4,5

(p) Behinbehineko datuak

m / m-12 Urteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

m / m-1 Hilabeteen arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtarriletik hil korrientera arte metatutako aldiaren urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean

Data 2023ko Apirilaren 26a

Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan (AHEK)

Azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentek behera egin dute 2023ko martxoan, urte artean, hiru lurraldeetan, prezio konstanteetan eta lan-egutegiko baldintza homogeneoetan. Araban % 5,7 jaitsi dira salmentak, Gipuzkoan % 3,4 eta Bizkaian, azkenik, % 1,3.

Aurreko hiruhilekoarekin (2023ko otsaila) alderatuta, salmentek behera egin dute hiru lurraldeetan. Gipuzkoan salmentak % 2,7 murriztu dira hiruhileko artean, Bizkaian % 1,6 eta Araban % 0,9.

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako landunen kopurua % 5,8 igo da 2022ko martxoaren aldean. Aurreko hilaren aldean, langileen indizea % 1,0 igo da.

2023KO LEHEN HIRUHILEKOAREN BALANTZEA: Indize Orokorraren metatua % 0,3 jaitsi da, Elikagaien salmentak % 2,4 jaitsi dira, eta Gainerako produktuen salmentak % 3,8 hazi dira

2023ko lehen hiruhilekoan, Azalera handietako eta elikadura-kate handietako merkataritza-indizearen beherakada % 0,3koa izan da, aurreko urteko lehen hiruhilekoarekin alderatuta. Jaitsiera hori *Elikaduran* metatutako salmenten % 2,4ko atzerakadak eragin du; izan ere, martxora arte metatutako salmentak % 3,8 igo dira *Gainerako produktuetan*.

Urtean zehar egundaino metatutako aldakuntza negatiboa da Araban eta Gipuzkoan, % 4,2ko eta % 1,2ko jaitsiera metatuekin, hurrenez hurren. Bizkaian, aldiz, salmenta metatuak % 1,1 igo dira.

Sektoreko landunen indizeak % 4,5eko hazkunde metatua izan du urteko lehen hiru hilabeteetan.

INFORMAZIO OHARRA

Urte arteko aldakuntzak kalkulatzeko, egutegi-eraginik gabeko serie zuzenduak erabiltzen dira, eta, hil arteko aldakuntzak kalkulatzeko, urtaro-eraginik gabeko serieak.

Eustatek eskerrak ematen dizkie Azalera handietako eta elikadura-kate handietako merkataritza-indizea egiten lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, hilabete honetako indizea **% 97,37ko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62